




berria

Gehigarri berezia  
Igandea, 2012ko urtarrilaren 15a

# Txillardegi

(1929-2012)



*«Estatu batekin, agian,  
euskara ez da salbatuko; baina  
estaturik gabe, ziur ezetz»*



# Euskal Herria helburu

Txillardegí Amasan (Gipuzkoa) izan zuen etxearen aurrean, 1998an. JAGOBA MANTEROLA

Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegí' hil da, 82 urte zituela. Aitzindari izan zen politikagintzan, hizkuntzalaritzan eta literaturan. Pentsalari eta ekintzaile. Obra zabala eta ideia sorta utzi ditu ondare.

## Gorka Erostarbe

Ondo bereizita egonagatik, elkarri loturiko hiru jarduerak zedarritu zuten Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegí-ren ibilbidea. Gutxienik hiru ezpaleko intelektuala izan zen. Pentsalaria eta ekintzailea. Politikagintzan, ETAn sortzailertako bat izan zen, eta Altsasuko mahaiaren eta Herri Batasunaren sorreran ere parte hartu zuen. Aralarreko kide ere izan zen. Hizkuntzalaritzan, euskaren soziolinguistika arloko alda-

rrikapenaren aitzindari izan zen, eta Federico Krutwig eta Koldo Mitxelenaekin batera euskara batuaren bultzatzaile nagusietakoa. Literaturan, euskal nobelagintza modernoaren abiapuntutzat hartzen da bere *Leturiaren egunkari ezkutua* estreinako nobela.

Atzo goizen zendu zen Txillardegí politikari, hizkuntzalari eta idazlea, Donostian, 82 urte zituela. Orain gutxi arte kalera irteten bazen ere, adinaren ondorioz osasuna ahuldua zuen aspaldian. Atzo 16:00etatik aurrera Donostiako Errekalde auzoko beilatokian (Donostia) izan zen Txillar-

degiren gorpua, oihal batez estalirik. Txomin Iturbe Abasolo *Txomin* ETako kide historikoaren gorpua estaltzeko erabilitako oihal berak estali du Txillardegí-ren hilotza ere. Gaur 15:15ean erraustuko dute gorpua, familia giroan. Ez da hileta elizkizunik izango. Ezker Abertzaleak atzo iragarri zuenez, omenaldi nazionala egingo diote hilaren 29an.

Hiru ur emari izan zituen bere ekinbideak, baina itsaso bera xede. 1994an *Euskal Herria helburu* saiakera liburua argitaratu zuen. Bere jarduerak kontatzen ditu memoria liburu horretan, bere ideiak nola sortu eta garatu ziren.

Euskal Herria izan zuen beti pentsamendu eta bizi-akuilu, helburu. Bere pentsamenduei beti leial, sarri joan behar izan zuen joera nagusien kontra. Bere pentsamenduari koherente izan zitzaion, euskarazko herriaren alde egiteko.

Jose Luis Alvarez Enparantza Donostiako Antigua auzoan jaio zen 1929ko irailaren 27an. Gurasoek euskaraz jakin arren, ez zioten irakatsi: etxean entzun ez eta bere kabuz hasi zen 1948an ikasten. Frankismoa gazte-gaztetatik bizi izan zuen, eta Euskal Herriaren egoera gogorraren kontzientzia hartuz joan zen. Handik aurrera

haren bizitzako ardatz izan ziren Euskal Herria eta euskara.

Bilbora joan zen Ingeniaritza ikastera, eta, han, ikaskide batzuekin batera Ekin taldea sortu zuen, gerora ETA izango zenaren aurrekoa. Abertzaletasun klasi-koarekin kritikoak ziren, eta frankismo itogarriaren aurrean EAJK agertzen zuen jarrera pasiboa salatzen zuen. EGIrekin elkarlanearitu eta gero, EAJ-tik erabat banandu, eta Ekinekoek beste erakunde bat sortzea erabaki zuten 1959an: Euskadi Ta Askatasuna. Hain zuzen ere, Txillardegik berak asmatu zuen ETA sigla. ETako zuzendaritzako parte izan zen, kulturaren adarrean. Fronte abertzale baten aldeko jarrera agertu zuen ETAn jardun zuen bitartean, eta marxismo-leninismoaren aurka azaldu zen.

ETA sortu aurretik idatzi zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* bere

↓ **Soslaia**

## «Beti at edo kontra»

**H**eriotzaren ideari ez zikion buelta asko ematen Txillardegik. «Fatalitate» handi bat zen beretzat. «Badakit egunen batean etorriko dela eta kito! Ez dut gauza horietan pentsatu. Beharbada arbuio modu bat izan daiteke, heriotza hor dagoela ahazteko modu bat, baina ez dut gauza horietan pentsatu». Honela zion Txillardegik Joxean Agirrek egindako *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean* elkarrizketa liburu luzean. Euskal Herrian kristautasuna gailen zen garaian agnostiko zen Txillardegi. Korrontearen kontra joateko joera izan zuen bere bizitzan. Edo beharra. «Ez da hala nahi izan dudalako izan. Ni ez naiz *snoob* bat eta ez zait gustatzen korrontearen kontra ibiltzea. Halaber beharra izan da. Bidea PNV zela onartua zenean, ETaren beharra sumatu nuen. Soluzioa Marxengan zegoela nagusi zenean, nik estalinismoaren goragalea sentitu nuen. Beti at edo kontra». Beti korrontearen alde izan zuena Jone Forcada emaztea

izan zen: «Arranke izugarrikoa da, ausardia handikoa eta beti aurrera jotzen duen horietakoa. Niri oso bizimodu gogorra tokatu zait. Jonek egin du posible, dudarik gabe, nik eraman dudun bizimodu zail eta esker-gabea», dio elkarrizketa liburuan. Neska kontuetan berantiarra izan zela — «25 urte nituenean hasi nintzen oilar-tzen» —, aspektu fisikoari dago-kionez ez dela izan oso nartzisista — «ez zait gustatzen zeri bat bezala joatea, baina ez dut sekula horrekin problemarik egin», eta bertsolari zaharrak gazteak baino nahiago zituela aitortu zion Agirrerri: «Batzue-tan programatutako bertsolari-ak iruditzen zaizkit. Aspaldiko-ek beste kutsu bat zuten».

Telebista ingelesez soilik ikusten zuten. «Euskal telebista amorratu arte ikusten dut, hau da, pare bat minutu». Kiroletan txirindularitza soilik zuen gustukoa, «oraindik ere alderdi eromantikoa baduelako», eta oso aldi behin pururen bat erretzen zuten. ■ **G. EROSTARBE**

lehen eleberria, 1956an. Urtebete geroago argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Ramon Saizarbitoria-*ren Egunero hasten delako* nobelarekin batera euskarazko eleberri gintza modernoaren abiapuntutzat hartzen da lan hori. Ondoren beste sei nobela eta hainbat saiakera liburu idatzi zituen Txillardegik.

1958tik 1960ra bitartean, Gipuzkoako Diputazioaren euskal literatura eskolak eman zituen.

### Ildo politikoarekin desadostasunak zirela eta, 1967an ETA utzi zuen

1961ean erbesteko bidea hartu zuen. Frantzia, Suitza eta Belgikan bizi izan zen. Atzerrian izan arren, ETAn segitu zuen (zuzendaritza utzi zuen arren), eta kultur gintza murgildua, eta zeregin askoren artean, Baionan Euskal Idazkaritza sortu zuen beste euskaltzale batzuekin batera. Elkarlan horretatik, ortografian eta morfologian oinarrituko arau batzuk adostu ziren euskara baturako, eta 1965ean agiri batean argitaratu. Lantalde horrek aurkeztutako proposamen gehienak geroago Euskaltzaindiak onartu zituen Arantzazuko Batzarraren ondoren, eta, hortaz,

Txillardegi aurrerabide haren eragile nagusietakoa izan zen.

### Politikagintzan ia amaiera arte

Ildo politikoarekin desadostasunak zirela eta, 1967an ETA utzi zuen, V. Biltzarra egin eta gero. 1977an, behin Hego Euskal Herri-*ra* itzulita, politikagintzan murgildu zen eta ESB (Euskal Sozialista Biltzarrea) alderdiaren sortzaileetako bat izan zen Iñaki Aldekoarekin batera. 1980an alderdi horretatik kanporatu zuten, euskarak alderdian izan behar zuen garrantziaren inguruko eztabaida baten ostean. Herri Batasunaren sorreran ere parte hartu zuen 1978an eta koalizioaren izenean senatari hautatu zuten. Bere bizitzako une gogorrenetakoa Madril-*en* senatari zela bizi izan zuen, armaturiko bi gizonek Josu Muguruza Herri Batasuneko diputatua (Espainiako Kongresuan) erail zutenean, 1989ko azaroaren 20an.

1976an unibertitatean hasi zen lanean, hizkuntzalaritzan espezialista gisa. Bordeleko Unibertsitatean, EUTGn eta Deustuko Unibertsitatean irakasle izan zen, 1967tik 1983ra arte. 1983-84ko ikasturteak aurrera, Zorroagako Fakultatean soziolinguistikako irakasle izan zen. 70 urte bete zituen, katedratiko emeritu izendatu zuen EHUK. Euskal Herrian Euskaraz taldearen sortzaileeta-



Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren hilotza, atzo arratsaldean, Errekaldeko bellatokia, Donostian. Txomin ETAKo buruzagi historikoa estali zuen oihal berberak estali du Txillardegiren gorpua ere. BERRIA

rikoa ere izan zen Txillardegi 1979an, baita Udako Euskal Unibertsitateko kide ere, hasieratik bertatik. Euskaltzaindian, hiru aldiz proposatu zuten euskaltzain oso izateko: 1980. urtean (Patxi Altuna aukeratu zuten); 1987. urtean (Juan Mari Lekuona); eta 1987. urtean (Ibon Sarasola). Euskaltzain urgazle zen 1957tik.

Bere bizitzaren azken urteetan ere ez zion utzi Txillardegik ekin bide politikoari. ETaren bide armatua agortuta zegoela iritzita, Aralar alderdiarekin bat egin zuen, hura sortu eta hilabete batzuetara. 2007ko maiatzaren 25ean, ordea, alderdia uztea erabaki zuen, Aralarrek ETaren biktimen aldeko ekitaldi ofizial batean parte hartu eta urte hartako udal hauteskundeetara Ezker Batuarekin batera koalizioan joan zenean. 2008ko urtarrilean, EAE-ANV alderdiko kideekin batera agertu zen hedabideen aurrean, Espainiako hauteskundeetarako hautagai-zerrenda erregistroan aurkeztuta joan zirenean.

@Txillardegiren heriotzaren albisteak BERRIA.INFOk eman zuen atzo eguerdian, eta lehen minututik oihartzun zabala izan zuen. Atzo ikusgai jarritako edukia ikusgai izango dira gaur ere egun osoan. Albiste bera eta erreakzioak jasotzeaz gain, Martxelo Otamendi Berriako zuzendariaren, eta Iñaki Petxarroman eta Juan Luis Zabala kazetari adierazpenak bideoan jasotzen BERRIA.INFOk atzo, hurrenez hurren, Txillardegik politikan, hizkuntzan eta literaturan izan zuen eragina jasoz.

## Asko zor dizugu, Txillardegi

**Martxelo Otamendi**  
BERRIA egunkariako zuzendaria

**E**uskaldunon *Egunkaria* jaio zen gaua, 1990eko abenduaren 5a, Lasarteko Industrialdearen erredakzioan. Berripaperaren lehen alea osatzen nahiko lan, eta ez zen astirik izan jaiotza merezi bezala ospatzeko. ETBko lankide pare bat agertu ginen jaiotzear zegoen egunkariaren langile sortzaileei zorionak ematera. Gure ustekaberako ez zen festa girorik, pizza batzuk apenas. Halako batean, Txillardegi agertu zen erredakzio-ko atetik xanpain botila batzuk eskuetan. Gaua animatu zien nekea eta urduritasuna aurpegietan marraztuta zeukaten aitzindari gazte haiei. Aitzindarien bi belaunaldi bildu ziren gau hartan, maisua eta ikasleak. Inprentara bidali berriak zituzten plantxa haiek irudikatzen zuten ondo baino hobeto urteetan Txillardegik euskararentzat proposatzen zuen modernitate.

Profil poliedrikoa dauka, gutxi bezala herri honetan, Txillardegik. Politika, hizkuntza, soziolinguistika eta literatura. Azken hamarkadetakoa erreferentzia nagusietakoa. Alor horietan guztietan lehen mailako eragilea izan zen, baina soziolinguistikarean aitzindari.

Euskara museoko hizkuntza izan beharrean hizkuntza modernoa eta noranahikoa bihur zedin ahalegin nekaezina egin zuen, eta eskola sortu. Eskola eta pentsamendua, teorizazioa, praktika eta aldarrikapena. Eta Euskal Herrian Euskaraz erakundea. Erakutsi zigun euskarak balio zuela bizitzaren edozein alorretan jarduteko, balio zuela eta balio hori eman behar geniola. Komunikabideen alorrean, adibide bat besterik ez da, gogoangarria da euskarazko telebista lortzeko antolatutako «Gabonetarako telebista euskaraz» kanpaina, geroago jaio zen EITBri bidea erraztu ziona Eusko Jaurlaritzara sortu berrian.

Euskararen estatus modernoa asko zor dio Txillardegiri; gaur egun euskaraz egiten diren gauza asko ez ziren egingo Txillardegik pentsamendu eskola sortu ez balu.

Asko aurreratu du euskarak plano sozialean Txillardegik lehen lerroak idatzi zituenetik, baina asko falta da oraindik amestutako egoerara iristeko. Badago oraindik despistatu xamar dabilenik; esate baterako, atzo alderdi abertzale baten izenean Txillardegiren balorazioa gaztelara hutsez idatzita bidali zuena.

Asko zor dizugu, Txillardegi. Egin duzuna zor dizugu, eta egitek dagoena egitea zor dizugu.

# Abertzale intelektuala

Abertzaletasun garaikidearen aitabitxia izan zen Txillardegi, eta Ekinen, ETaren, Herri Batasunaren eta Aralarren sorreran parte hartu zuen.

## Eduze Begiristain

**I**dazle, pentsalari, hizkuntzalari eta ekintzailea izan da Txillardegi, baina, ororen gainetik, intelektual konprometitua. Independentista, eta abertzaletasun garaikidearen aitabitxia. Euskaltzale porrokatua. Ekin eta ETaren sorreran pisu ideologiko handiz parte hartu zuen, baita Herri Batasunaren eta Aralarren ere. 1947an sartu zen politikan, eta EAJrekin loturik burutu zuen bere lehen «ekintza». Joxean Agirre kazetariari *Hitza hitz, Txillardegirekin solasean* liburu-rako kontatu zionez: «17 urte nituen artean, eta paper batzuk eman zizkidaten PNVkoek, etxetako ate-azpietatik sartzeko eskaerarekin. Eta beldurrez kikituta, halaxe egin nuen Parte Zaharrean».

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* abertzale eta ezkerreko intelektuala izan zen, eta haurtzarotik bizi izan zuen Donostia-ko Antigua auzoan kale arteko borroka. 1948an ezerezetik hasita, zazpi urtez euskara ikaste-ri gogor ekin zion. Euskarak abertzaletasunera eramanezuela aitortu zuen Txillardegik *Gara* egunkarian, 2010eko elkarrizketa batean: «Euskarak eramanez ninduen abertzaletasunera. Nire us-tez, euskaltzale batek derrigorrean izan behar du abertzalea, ez baitago soluziorik hori gabe».



Telesforo Monzonekin Baionako katedralearen, Frantziak bei Ipar Euskal Herrian bizitzeko baimena ukatu ondorengo protestan. BERRIA

1952. urtearen bukaera aldean, unibertsitateko beste lagun batzuekin batera, Txillardegik Ekin talde politikoa sortu zuen, geroago ETA bihurtuko zena. Militantziak atxilotua izatera eramanez, eta 1961ean erbesteko bidea hartu zuen. Une horretan bertan hasi zuen Hego Euskal Herri-ko kanpo emandako hama-

sei urteko aldia (1961-1977). Iparraldean, Parisen eta Bruselan, idazketa eta engaiamendu politikoa uztartuz jarraitu zuen.

Erbesteko bizipenak gogora ekarri zituen Txillardegik *Gara*-ko elkarrizketan: «Ni joan ondoren, jende asko hasi zen Iparraldera ihes egiten. Ordu-rako, bagenituen harremanak. Enbataren

lehenengo bilera batzuk nire etxean, Donostian egin ziren. Ximun Haran, Jakes Abeberri, Jean Louis Davant... ezagutzen nituen ordurako. Harremanak mantendu egin genituen; gero batzuk desmarkatu ziren. Abeberri oso gure aldekoa zen, eta beti egon da bestaldetik zetozenen zerbitzura. Eta hori PNVkoek ez zuten onartzen...».

*Argia* aldizkariari 2007an eskaintako elkarrizketan ere erbestaldia nolako izan zen azaldu zuen: «Ni 1961ean eskapatu nintzen, eta 1977ra arte egon nintzen kanpoan. 1976an pasa nintzen lehenengo aldiz alde honetara. Anaia, Juan Mari, gobernadore zibilarren laguna zen, eta 'nire anaia-ri etortzeko esango diot', esan zion. 'Pasa dadila, ez zaio ezer gertatuko', erantzun zion hark. Eta horrela etorri nintzen. Mugara nire bila etorri zen; muga

**ETaren sorreran parte hartu zuen, eta erakundearen siglak hark asmatu zituen**

**Ekin, ESB eta Herri Batasunaren sortzaileetako bat izan zen**

pasa, eta '*Bienvenido a España, Sr. Alvarez. Mejor dicho: Bienvenido al País Vasco*' (Ongi etorri Espainiara, Alvarez jauna. Hobe esanda, ongi etorri Euskal Herri-ri) esan zidan poliziak Irunen».

Ekin eta ETaren sortzaileetako bat izan zen Txillardegi. Bilbora joan zenean Ingeniaritza ikastera, ikaskide batzuekin ba-



Herri Batasuneko diputatu eta senatariekin

tera Ekin taldea sortu zuen. Abertzaletasun klasikoarekin kritikoak ziren, eta frankismoaren aurrean EAJk agertzen zuen jarrera pasiboaren aurkakoak. EGirekin elkarlanean aritu eta gero, EAJtik banandu, eta Ekin-ekoek beste erakunde bat sortzea erabaki zuten: Euskadi Ta Askatasuna.

Hain zuzen ere, ETA sigla Txillardegik berak asmatu zuen. «Nik atera nuen. Euskaraz besteek baino nik gehiago nekielako. Hasieran pentsatu genuen Aberri Ta Askatasuna izena jar-tzea, baina siglek ATA ematen zuten, eta Bizkaian ata *pato* da... Ez zen egokia. Orduan, ATA orde-z, ETA botu nuen; hitzak kon-juntzioaren esanahitik aparte ez zuten besterik». Halaxe azaldu zuen izenaren asmakizuna

## Txillardegi, aitzindaria

### Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzailea

**J**ose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, Larresoro... izen anitz eta gauza asko izan da bere bizitzan Euskal Herriaren-dako eta euskararen-dako. Joan direnekin maiz gertatu ohi den bezala, Txillardegiri buruz ere, zertzelada ikusgarri batzuk gehiago azpimarratuko dira egun hauetan, agian bere beste ezaugarri esanguratsu baina aruntago-ak baino. Omeneko lerro apal hauetan nire asmoa da beste

ezaugarri horien aipamen xumea egitea.

Frankismoaren garai beltzetan ETA erakundearen sortzaile-etako bat izan zela bezain egia da Jose Luisek beti adorez eta keme-nez defendatu zuela politikagint-zaren lehentasuna eta bakearen premia-zko beharra.

Ezkerrekotzat eta abertzale-tzat eduki zuen beti bere burua, eta zintzo eta zorrotz jokatzeko jo-era zeukan edonolako egoeratan, eta baita hortik kalteak etorriko bazitzaizkion ere. «Ez nago mo-dan» hainbeste eta hainbestetan

aitortu behar izandako gizakia zen, eta irizpideak beti lehenetsi behar direlako uste sendoarekin jarduten zuen bizitzako arlo guz-tietan, eta arerioaren neurriari jaramonik egin gabe. Eztabaidari sutsua eta pentsamendurekin beti kezkatuta, ez zuen inoiz bere ikuspegirik ezkatutu edo leundu beti izaten; horixe zen alde bate-tik bere xarma, eta bestetik bere muga.

Euskarak XXI. mendeko pre-miei erantzuteko moduko hizkun-tza izatera eramanez behar dugula eta hizkuntzaren batasun litera-

ria o bultzatzeari lotu zitzaion su eta gar. Alde batetik hizkuntzalari-tzan eta bestetik, literaturgintzan bide berriak urratu zituen, eta gaur egungo euskal prosak ekar-pen erabakigarriak zor dizkio.

Txillardegiren kezka nagusia zen herriak hizkuntza beharrez-koa duela eta Euskal Herriak eus-kara ezinbesteko ezaugarria due-la aldarrikatzea. Ikuspegi horre-tatik egin zituen inoiz kritika eta arbuia-pen mikatzak, baina ez bai-tzen ezertan bere xedea adiskide-ak egitea izaten. Hurbileko harre-man pertsonalean gizaki goxo, leun eta maitagarria zen, baina aldi berean eztabaidetan maiz ir-mo eta zorrotzegia. Bere elberri guztietan -Leturiatik Exkixura-

aurki litezkeen pertsonaien ant-zekoa.

Monzonekin harreman bitxia eduki zuen, eta biak dira nolabait Euskal Herriko gaurko egoera as-koren aitzindariak. Erbestea eta etxekoan espetxea eta mota ani-tzeko jazarpena jasan ondoren, joan zaigu Jose Luis lasaitasuna eta atsedena hartzera.

Herrigintzan eta euskalgint-zan aitzindari izandakoa joan zaigu. Zehazki lehentasun politi-koko ezker abertzalea amestu zuen politikari zintzo eta zorrotza. Aitzindari guztiei bezala, be-re asmoak osorik betetzen ikusi eta egin diren urratsak ukaezi-nak izan.



Espainiako Gorteetako jauregiaren atarian, 1989an. BERRIA



EAE-ANVrekin 2008an Espainiako Gorteetarako bozetan hautagai aurkeztu zenean. JAVIER ETXEZARRETA / EFE



Aralarrek egindako prentsaurreko jendetsu batean, 2005ean. J. C. RUIZ / ARP

Gara-ri eskainitako elkarrizketan.

#### Gutun bidez Leizaolari

1959an, Julen Maradiaga, Jose Manuel Agirre, Benito del Valle, David Lopez Dorronsoro eta Eneko Irigarairekin batera sortu zuen ETA erakundea. Txillardegik idatzi zion gutuna Jaurlaritzari 1959ko uztailearen 31n ETArekin sorreraren berri emanez. Jesus Mari Leizaola zen orduko erbesteko Jaurlaritzako lehendakaria, eta hari bidali zion eskutitza hura.

Batez ere ETArekin kultura adarrean jardun zuen Txillardegik erakunde armatuan. ETArekin sorrerari buruzko xehetasunak hainbat elkarrizketatan eman izan ditu Txillardegik. ETArekin barruko seigarren adarraren jatorriaz, zehazki, honako hau zioen duela bi urte: «Gure arteko batzuek esaten zuten errealistak izan behar genuela: arazo nazionalak beti bukatzen dira oxtiaka

—Juanjo Etxabek zioen bezala—. Orduan hauxe pentsatu genuen: Etxabek dioen moduan bukatu behar badu kontu honek, goazen adar bat antolatuz, herriaren kontrako biolentziari aurre egingi diona. Orduan, Seigarren Adarra deitu genuena sortu zen».

#### ESB, HB, Aralar...

1961ean erbesteko bidea hartu zuen, lehenik Frantziara eta gero Suitzara. Atzerrian izan arren, ETAn jarraitu zuen. 1967an ETA utzi zuen, erakundearen zuzendaritza berriak hartutako bide marxista-leninistarekin bat ez zatorrelako. Gutun batean eman zuen bere erabakiaren berri.

Halaxe gogoratzen zuen erabaki hura Txillardegik duela bi urte: «Askatasun politikoan ados ginen, baina momentu hartan Alderdi Komunista bat egiteko tentazio handia zegoen. PCEren intrusismoa... Niretzat jende horrekin ibiltzea oso arriskutsua

zen, bestela denok joango ginen zulora».

1969ra arte Belgikan konfinatuta egon zen. Orduan, konfinamendua hautsi, eta Frantziako Gobernuaren baimenik gabe Hego Euskal Herrian aurkeztu zen. Geroago, 1970ean, Telesforo Monzonekin batera Fronte Abertzale bat sortzen saiatu zen, baina Frantziako Gobernuak sei hilabete kanporatu zituen biak, eta huts egin zuen saio hark.

1977an, Franco hil eta bi urtera, Txillardegik sorterrira itzuli zen. Urte hartan bertan, beste lagun batzuekin batera, ESB Euskal Sozialisten Biltzarra sortu zuen, euskaltasuna eta sozialismoa aldarrikatzen zituen alderdia. Hura izan zen, hein handi batean, handik urte batzuetara Herri Batasuna izango zenaren aitzindaria.

1980ko hamarkadaren hasieran, Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen, eta alderdi barruan aritu zen —bi legegilditan senatari izan zen—. Bide armatua amaitua zegoela iritzita, Aralar alderdi sortu berriari militatu zuen, ostean. 2007ko maiatzean, ordea, Aralar uztea erabaki zuen, alderdiak ETArekin biktimen aldeko ekitaldi ofizial batean parte hartu zuenean eta urte hartako udal hauteskundeetara Ezker Batuarekin batera koalizioan joan zenean.

2008ko urtarrilean, berriz, EAE-ANV alderdiko kideekin batera agertu zen hedabideen aurrean, Espainiako hauteskunde-etarako hautagai zerrenda erregistroan aurkeztetara joan zirenean.

## Azken titulua

Jose Mari Pastor  
Kazetaria

A rratsaldeko ordu biak izateko minutu batzuk falta dira Txillardegiren heriotzaren berri izan dudanean. Telebista piztu dut *Gaur Egun* albistegia ikusteko. Tituluak: itsasontzi baten istripua Italian; Standar and Poor's; EA Jren batzarra; sarraskia Iraken; Urumeako uholdeak konpontzeko eskatzeko manifestazioa; txotx gariaren hasiera; eguraldia... ETBn Txillardegiren heriotzaren berririk ez ote duten izan pentsatzen hasia naiz. Baina ez, eguraldiaren ondoren aipatu dute. Euskaldunontzat, euskaraz bizi garen euskal herritarrontzat, askoz garrantzitsuagoa omen da eguraldia Txillardegik hil dela jakitea baino. Euskal telebista publikoaren euskarazko albistegiak azken titulua eskaini dio Txillardegiren heriotzari.

Txillardegik erreferentzia izan da euskararen munduan murgilduta ibili garen eta bagabiltzan guztiontzat. Haren lana, haren pentsamendua, haren borroka eta konpromisoa funtsezkoak izan ditugu. Gaztetan, institutuko lagunak Bilbora joaten ginen euskarazko liburuak Verdes edo Kirikiño liburu dendetan erostera. Horien artean haren obrak zeuden: *Euskara batua zertan den*, *Euskal Gramatika*, *Euskal Fonologia*... Lan itzela, arlo teori-

ko eta praktikokoan. Hala ere, euskaltzain osoa izateko aukera hiru aldiz ukatu zioten. Argi dago zergatik: haren konpromiso politikoa agatik, Euskal Herri euskaldun eta burujabearen aldeko borrokan burua ez makurtzeagatik.

2008ko urriaren bukaeran gutun bat iritsi zitzaidan etxera. Ireki, eta barruan orri bat zegoen, eskuz idatzia. Haren mezua zen, Patxi Lopezek euskara eta indarkeria lotu ondoren idatzi nuen zuta-beagatik zoriontzeko. Argutu aurretik hitz hauek zeuden: «Gustura irakurtzen ditut zure artikulua, Darwin pertsonaia kriptikoa horrekin arren».

Handik gutxira, Donostiako Parte Zaharrean ikusi nuen, emaztearekin. Aurrera segitu nuen ezer esan gabe, baina gero bueltatu eta haiengana abiatu nintzen arineketan. Atari baten aurrean aurkitu nuen berriro. Neure burua aurkeztu nuen. Gogo izan nuen esateko 70eko urtearen bukaeran eta 80ko hamarkadan *Egin* egunkarian idazten zituena artikulua goitik behera irakurri eta gorde egiten nituela, gero behin eta berriro errepasatzeko. Lotsatu egin nintzen. Hizketan nola jarraitu jakin ez, eta esan nion irakurri nituela berak eta Juan Luis Zabalak bi urte lehenago Galiziara egindako bidaiaren kronikak, *Leturiaren egunkari ezkutua* nola idatzi zuten gogoratzeko. Irribarre egin zuen. Gero, ezkaratzean sartu zen.



# Euskaltzainik osoena

Euskara batuaren aitzindari eta hizkuntzalari nekazina izateaz gain, herriari euskararen garrantziaren kontzientzia politikoa hartzen lagundu zion Txillardegik, bizitza osoko lan oparo eta etengabea.



Txillardegik, iaz, Donostian EHEk antolatuta egin zioten omenaldian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Iñaki Petzarroman

**M**erezimendu asko ditu Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik hizkuntzaren eta euskararen alorrean. Baina bat aipatzekotan, dudarik gabe, euskara batuaren alde egindako lana da. Hura izan zen, frankismoaren garaiko urte ilun eta testuinguru politiko zailean, euskara batua sortzeko eta Euskaltzaindia zeregin horretaz abetzeko lan gehientsuen egin zuen euskaltzalea. Ez zegoen bakarrik, jakina, baina gazte belaunaldi berri baten buru Txillardegik izan zen. Gazte belaunaldi horrek Koldo Mitxelenaren babesa lortu zenean sortu zuen Euskaltzaindiak, 1968ko Arantzazuko batzar sonatuan, euskara batua.

Ez zen lan erraza izan. Etsai asko zituen euskara batuak orduan, eta ez preseski frankismoaren erregimenean bakarrik. Euskaltzaindian bertan ere asko ziren euskara batua sortzearen aurkakoak. Hala aitortu zuen Koldo Mitxelenak berak, 1959an, Txillardegik euskara batuaren beharraz egindako hitzaldi baten harian: «Gutxi gora behera bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekeanik».

Bi ziren euskara batua egiteko korronte nagusiak: Federico Krutwigena bat, eta Txillardegik eta Mitxelenarena bestea. Krutwig getxotarra zen, baina gurasoak alemanak zituen, eta haren eredu germaniarra zen. Funtsean hauxe proposatu zuen euskara batua egiteko: alemanek Luteroen biblia hartu zuten bezalaxe, euskaldunek Lizarragarena hartzea eta eredu moduan erabiltzea. Ez zuten eredu hori ontzat jotzen Txillardegik-eta. «Euskara hura oso bitxia zen guretzat: *ikus nuen* beharrea, *ikus neban* erabiltzen zuen, eta *esan zion: erran ziotzon*. Oso hizkuntza artifiziala zen hori, eta gu horren kontra geunden».

Mitxelenak zioen euskara batua inork erabili eta osatuko ba-

## Txillardegik, euskal 'intelligentsia'-ren haritik

Andres Urrutia  
Euskaltzainburua

**U**nibertsitatean harrapatu nau Txillardegiren heriotzaren albisteak, hain zuzen ere, euskarazko ekitaldi batean. Hona nire lehen burutazioa, Txillardegiren gomutan: euskara eta unibertsitatea. Bera, beste batzuekin batera, errealtate horren egilea izan zen. Gero, jakina, bestelako kon-

tuak etorri zaizkit burura, hala nola, behinolako hitzorduak, Ned Thomas galestar soziolinguistarekin, Ondarroan emandako hitzaldi hura edota hamaika ekimen eta lan, euskararen sustatze eta babesletza zereginetan gauzatuak.

Belaunaldiegi dagokienez, Txillardegik ekarri zigun guri, joan den mendeko 50-60 hamarkadetan jaiotakoei, halako haize berria, desberdina, nobela zein saia-

kera arloetan eta, oro har, gizartearen eta kulturgintzaren esparru anitzetan. Osterantzeko tenore horrek zekarren, ekarri ere, euskararentzat etorkizuna eta bizi-raupena.

Ingurukoa aintzat hartuta, Txillardegik, beste askoren antzera, oro egilea izan da euskalgintzan, teorikoa nahiz eragilea. Letraz letra irentsi genituen gutariko askok, gose eta ezin ase ari ginenok euskararen munduan, haren la-

nak eta tituluak, euskara batuaren eraikitze prozesuan.

Euskara batua, euskararen eraberritzea, euskararen normalizazioa... orduko kezka eta ardurak ziren, egun ere euskaldunoi ezinegona ekartzen digutenak. Txillardegik, bistan da, horiek askatu, erraztu eta aurreratu ahalegindu da.

Kontuak kontu, Txillardegik gerra osteko euskal *intelligentsia*-ren berregite prozesuan zeregin

esanguratsua bete ditu. Era berean, esker abertzalearen ildoan, ezbairik gabe, hots handiko lana egin du, ekintzaz nahiz lekukotzaz. Nobela egilea, saio egilea, soziolinguistikaren inguruko aditua, kazetaria eta maisua, irakaslea, aukera guztiak baliatu zituen edonon eta edonoiz, euskararen aldeko ideiak barreiatzeko eta gizarteratzeko.

Luze eta sakon jardun du Txillardegik euskalgintzan eta

zuen Bizkai-gipuzkoetako gazte euskaldunek egingo zutela eta haientzako erabilgarri izango zen hizkuntza erabili behar zela batuz. Txillardegik-eta ez zuten egokien ikusten bizkaiera, eta, Oiarzun, Sara zein Elizondo arteko euskalkien nahasketa bat proposatu zuten euskara batuarentzat. Funtsean eredu hori onartu zen, bizkaiera baztertua.

1964an jarri zituzten eredu horren oinarriak Euskal Idazkaritza Elkarteak Baionan egin zuen bileran. Bilkura hartan ziren Jose Angel Irigarai, Benito del Valle, Julen Madariaga, Piarres Laffite, Jean Louis Davant eta beste hainbeste lagun, Mixel Labegerie abeslari eta diputatua lehendakari zutela. Elkarte horren proposamena —Txillardegik idatzia eta 1958ko *Batasunerako bidea* txostenari fidelki jarraitzen ziona— izan zen euskara batuaren hazia. Besteak beste, eredu berriaren idazkera, deklinabidea, aditza eta *h*-aren erabilera zehaztu zituzten.

Argi zuten Txillardegik zertarako behar zen euskara batua: sortzen ari ziren ikastoletan, gau eskoletan, hedabideetan, bizitzaren alor guztietan erabiltzeko. Hala, euskara batuak erabilgarria izan behar zuen, euskaldun guztiok elkar ulertzeko bide eman behar zuen. Honela azaldu zuen ideia hori *Zeruko Argia*-n 1970ean idatzitako *Euskalkietatik euskerara* artikuluan. «Zer idatzi behar du zerbait esan nahi duenak: *ekarri dabela, ekarri duela, ekarri duala, ekai doala, ekharri dala, ala ekharri dila?*» Ez esan, gero, gauza hauek txikikeriak direnik: gauza hauetxek dira-ta, aitzitik, gure hizkuntzaren *patois-keria* eta hondamena. Gazteleiaz ezin ditike idatz: *hemos ido, hamos ido* edo *amos io*, idazlearen gogara. Ez, Ez frantsesez edo errusieraz ere. Zergatik bai euskaraz? *Aberastasu*na esan ohi den saltsa-nahaspila hori ez ote da, ordea, beste akats sakonago baten oihartzuna? Alegia: gure leinukeria, gure tribalismoa, eta Kondaira-Aurretik ezin irtezea».

horren barruan, Euskaltzaindian ere. Haren emaitzak eredugarriak eta aintzat hartzekoak dira eta haren merituak zalantzarik gabekoak. Aspaldiko euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz ikusi genuen askok haren hautagaitzak ez zuela aurrerapiderik izan euskaltzain oso izateko. Urte batzuk geroago, euskaltzain ohorezko izendatu genuen eta berak izendazio hori baino, nahiago izan zuen eta biziki eskertu ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak batera argitaratu eta Henrike Knörr zenaren eta Pilartxo Etxebarraren zuzendaritzapean

Ez zen zeregin horretan geldirik egon Txillardegik. *Sustrai bila* liburua idatzi zuen 1970ean, eta *Oinarri bila* 1977an, euskara berriaren inguruko zalantzak eta dudak uxatzeko adibideak emateko. *Euskara batua zertan den* liburuan Arantzazuko batzarretik 1974ra arte Euskaltzaindiak garatutako guztia bildu zuen. *Euskal gramatika* (1978) liburuan euskara batuaren lehen gramatika osoa bildu zuen. Eta, azkenik, *Euskal Aditx Batua* liburua idatzi zuen, adizkiak modu pedagogikoan zabaltzeko. Azken urteotan bereziki kezkatuta agertu da fonetikaren alorarekin, hor ikusi izan dituelako joera kezagarri batzuk: «Izkribuzko euskara batzen eta finkatzen ari bada ere, ahozko euskara inoiz baino okerrago dago gaur: erdal interferentziak azkartu eta ugalduta, euskal sena ahuldu eta suntsitu baita euskaldunik gehienengan», idatzi zuen *Euskal Fonologia* liburuan.

#### Estatuaren beharra

Euskara, zerbaitetarako bazen, erabiltzeko zen. Eta hori garbi zuten Txillardegik. Eta gogor kritikatu zituen euskarari maitasuneko hitzak bota bai baina egunerokoan erabiltzen ez zuten politikari eta eragileak. Egoera horri aurre egiteko sortu zuen, beste hainbat lagunekin batera, Euskal Herriaren Euskaraz elkartea 1981ean. «Euskara beti bigarren mailan geratzen zela ikusten genuen, eta horri gogor aurre egin behar zitzaioke sortu genuen».

Hasieratik lotuta ikusi zituen bi kontzeptu hauek: aberria eta hizkuntza. Euskara beti bigarren mailan ikusteak sortu zion, gazte-gaztetan, harekiko interesa. Etxean, gurasoak euskaldunak izan arren, ez zitoten inoiz euskaraz egin: «Egoera diglosia garbia zen, eta gauza serioetarako espainola erabiltzen zen. Jende arruntarekin, baserriarekin-eta, euskaraz egiten zen. Diglosia zegoen, eta, gainera, zentzurik txarrenean». Etxetik at ikasi zuen, beraz, euskara.

jaso zuen omenaldi liburua, *Nerekin yaio nun*, 2005. urtean. Falta zena Euskaltzaindiaren literatura batzordeak ondu zuen 2007. urtean, haren lehen nobela, *Leturiaren egunkari ezkutua*, aztergai hartu jardunaldi batean eta emaitzak kaleratu zituenean urte bereko Euskera agerkarian.

Joan zaigu Txillardegik. Etxeko-ei, bihotz-bihotzez, doluminak. Euskalgintzari, aldiz, itxaropena, garai latz hauetan, apartera joan gabe, gurean baititugu aurrera egiteko gidariak. Besteak beste, Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegik*.



Martin Ugalde, Txillardegik eta Joxe Austin Arrieta, *Euskaldunon Egunkaria*-ren 10. urteurrena ospatzen. EGUNKARIA

Eta, egoera horri aurre egiteko, kulturaren munduan ez ezik, politikaren alorrean ere lan egin zuen Txillardegik. Garbi zuen betetako normalizazio politikoa lortzeko euskarak estatu bat behar duela, haren normalizazioa babesteko duena: «Estatu batekin, agian, euskara ez da salbaturik; baina estatutik gabe, ziur ezetz». Izan ere, arriskuan ikusten zuen euskara frankismoaren urte ilunetan, eta arriskuan ikusten zuen gaur egun ere: «Arriskuan gaudela ez dugu sinesten. Baina, nire ustez, ikusita dago: ez bada beharrezkoa bere lurraldean, hizkuntza batek jai du. Eta hemen oso ondo bizi liteke euskaraz fitsik ulertu gabe».

Ezker abertzalearekin eta ETArekin izandako harremanaren ondorioz, Euskaltzaindiak uko egin zion Txillardegiri euskaltzain osoaren kargua emateari. Hiru aldiz ukatu zion akademiak merezimendu hori Txillardegiri: 1980an, 1987an eta 1988an. 1995ean ere proposatu zuten Maria Labaien postua hartzeko, baina orduan Txillardegik berak egin zion uko izendapenari.

Hala, euskara batuaren alde lan mardulenetakoa egin zuena Euskaltzain oso izendatu gabe joan da. Minik gabe, ordea. Hala aitortu zion iaz BERRIA-ri egindako elkarrizketan. «Niretzat garai batean mingarria izan zen, baina gaur egun jada ez». Karguak baino, egindako lanek erakusten dute merezimendurik bazuen edo ez. Haren ibilbideak ez du zalantza handirik utzi horretaz.

## Euskarari eskainitako bizitza

Lurdes Auzmendi  
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza  
Politikarako sailburuordea

Historiak Txillardegik asko gogoratuko ditu. Politikaria. Idazlea. Hizkuntzalaria. Diktadura garaian bere ideietatik erberatu behar izan zuena. Eta, jakina, guztien gainetik, euskaltzalea. Bizitza emankorra izan da harena.

Kosta egiten zait imajinatzea nolakoa izango zen euskara Txillardegik gabe. Euskara batuaren sorrera Koldo Mitxeleneri, Aita Villasanteri eta Txillardegiri berari, besteak beste, zor baitiegu. Euskara baturik ez balego, gure hizkuntza bospasei dialektotan zatiturik legoke, bakoitza bere aldefik, besteetatik bereizteko norgehiagoka agian. Euskara baturik gabe, ez genuke unibertsiteate, administrazio edo telebistatik edukiko euskaraz. Euskara ez litzateke hizkuntza moderno bat izango, zientzian eta Interneten naturaltasun osoz erabiltzen dena.

Bistan denez, euskarazko literaturak ez zuen inoiz lortuko gaur duen maila euskara baturik gabe. Eta Txillardegik arlo horri egin zion ekarpena funtsez-

koa da. *Leturiaren egunkari ezkutua*-k, 1957an argitaratuak, gure hizkuntza garai hartan munduko beste hizkuntza batzuetan adierazitako sentimenduei ireki zion. Eleberrri hori mugarri bat izan zen euskararen literaturaren historian. Ia sinestezina da euskara ama hizkuntza ez zuen norbaitek hain maitasun handiaz idatzi ahal izatea euskaraz. *Leturia*-z geroztik, euskarazko literatura lehen leerroan izan da.

Ezin dugu Txillardegik soziolinguista ahaztu. Saussure, Whorf, Lévy-Strauss eta Lacan-en teoriaren zenbait osagarri hartuz, bere teoria berezia sortu zuen. Euskara euskaldunen arimarekin bat egin zuen. Zuzen edo oker, sinemen hori haren lan guztietan igartzen da, eleberrietan, saiakeretan, artikuluetan eta idatzirik utzi zuen gramatika bertan ere bai. Euskararik gabe ez dagoela Euskal Herriko ulertzen lagundu zigan gure belaunaldiko askori.

Jose Luis Alvarez Enparantza hil da. Agian Larresoro, Igara, Harribizketa eta Goihenetxe ere hil dira (erabili zituen beste izen goiti batzuk aipatzeagatik). Baina Txillardegik beti biziko da gure artean.



Txillardegia, Ferrolgo mendiguru batean, *Leturiaren egunkari ezkutua* idatzi zuen lekua bisitatzen, 50 urte geroago, 2006an; Espainiako armadak airekoen aurkako bateria bat zeukan leku hartan. PACO VILA

# Bakarrik zegoen Zerubiden

Ordura arteko kostunbrismoa gaindituz, pertsonaia gatazkatsuei eta garaiko gaiei atea zabaldu zien Txillardegik duela 55 urte, 'Leturiaren egunkari ezkutua' lehen euskal nobela modernoan.

Juan Luis Zabala

**E**uskarazko lehen nobela modernotzat jotzen dena, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Ferrolen (Galizia) soldadu zegoela idatzi zuen Txillardegik, 1956an, 29 urterekin, Espainiako armadak Prior lurmuturrera begira zuen airekoen aurkako bateria batean. Ordu asko ematen zituen leku hartan, hantxe egoteaz aparteko beste betebeharririk gabe, eta idazteko astia ematen zion horrek. Asti hori Knut Hamsun norvegiar idazlearen *Pan* eleberria euskaratzen emateko asmoa zuen, baina Koldo Mitxelena animatu zuen inoren lana itzuli ordez berak zerbait sortzera.

Ferrolgo Udal Parkean aulki

batean eserita zegoela, neska gazte bat ikusi zuen egun batean, urmaelera gerturatzen, zakur bat atzetik zuela. Une hartan piztu zen Txillardegiren baitan *Leturiaren egunkari ezkutua*-ren idazketa prozesua abian jarriko zuen txinparta. Hari jarraituz, Joseba Leturia «anaia bikia» pertsonaia ardatz hartuta, existentzialismoaren inguruan zituen kezkei nobela baten bidez eman zien irtenbidea Txillardegik. Pertsonaia bakarti eta gogetari emana da Leturia, garaiko literatura eta filosofia lan garrantzitsuenak ezagutzen dituen, existentzialismoarekin lotutakoak batik bat. Miren izeneko emakume batekin maitemintzen da, eta maitasun horrek eragiten dizkion barneko tirabiren eta oina-zeen berri ematen du nobelak,

«Bakarrik nago 'Zerubide'-n» esaldiarekin hasita.

*Kierkegaard*en azia, *Unamuno*-ren lore zuen izenburu Txillardegik argitara emandako aurreneko artikulua. Miguel Unamunok eta Jean Paul Sartrek arrasto sakona utzia zuten ordurako haren gan. Garai hartan beste idazle batzuen eragina ere jaso zuela aitortu ohi zuen: William Shakespeare, Albert Camus, Thomas Mann, Knut Hamsun...

Hainbat gaitzespenekin batera —ñaki Bastarrikarenak izan ziren gogorrenak—, Koldo Mitxelena eta Joxe Azurmendi-*ren* laudorioak jaso zituen Txillardegiren lehen nobelak. Urte batzuk geroago, aurreneko euskal nobela modernotzat jo zuen Jesus Mari Lasagabaster literatur kritikariak, Joseba Leturia zelako

euskal literaturako aurreneko pertsonaia gatazkatsua eta ordu-ra arte euskarazko narratibaren planteatu ez ziren gai modernoak jorratu zituelako, ordura arte euskal nobelagintzan nagusitutako kostunbrismotik eta ortodoxia katolikotik urrun.

## Aitzindaritzat aitortua

Teknika narratiboen arloan ez zion aitortu gaien planteamenduen adinako modernotasunik Lasagabasterrek *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri, eta Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*-ri (1969) egotzi zion teknika narratiboen aldetik lehen euskal nobela modernoazateko meritua. Baina Lasagabasterrek berak ikuspegi hori aldatu egin zuen urteekin, 2006an aitortu zuenez: «Txillardegik euskal nobela-

gintzan mundu moderno bat martxan jarri zuen *Leturiaren egunkari ezkutua*-rekin, eta hori ezinezkoa izango zitzaion formaren aldetik ere zerbait berria eta modernoan egin ez balu».

Mari Jose Olaziregi literatur kritikariak *Leturiaren egunkari ezkutua* «klasiko bat» dela adierazi zuen atzo, Txillardegiren heriotzaren berri izan ondoren egindako adierazpenetan. «Idazteko molde berriak ekarri zituen, eta estandar literarioetan hasi ginen, behingoz, gure literatura balaratzen eta irakurtzen».

Txillardegik ez zuen lehen euskal nobela modernoan idazten ari-*tzeko* kontzientziarik izan. «Profetismo hori izan badut, *de facto* izan dut, *ez a priori*», esan zuen.

*Leturiaren egunkari ezkutua*-z gain, beste sei nobelak osatzen dute Txillardegiren produkzio literarioaren bizkarrezurra eta funts nagusia. *Peru Leartzako*-k (1960) krisi espiritual baten ondorioz budismoaren ildotik bidea aurkitu nahi duen gazte baten gorabeherak ditu kontagai; *Elsa Scheelen*-ek (1969) aberatsen





munduan sartzea erdietsi ondoren mundu horretan ezin etsi duen emakume gazte eder bat du pertsonaia nagusi; *Haizeaz bestaldetik* (1979) basamortuan girotutako nobela lirikoak da, egilearen ustez bere nobelarik «sakonea eta sinbolistena»; *Exkixu*-k (1988) ETAko kide baten motibazioak, bizipenak, kezkek, beldurak eta pozak erakusten ditu; *Putzu*-k (1999) karlista batenak; eta *Labartzari agur*-ek (2005) ezker abertzaleko militante batek espetxean 17 urte igaro ostean kalera irten eta kanpoko errealtatearekin egiten duen talka du kontagai. Horiez gain, 1984an *Kosmodromo* argitaratu zuen, 1957 eta 1969 artean hainbat aldizkaritan argitaratutako lau ipuin batuz.

*Leturiaren egunkari ezkutua* ren adinako indar erreferentzialik izatera iritsi gabe, *Peru Leartzako*, *Elsa Scheelen* eta *Haizeaz bestaldetik* nobela komentatuak eta oso aintzat hartuak izan ziren. Azken hiru nobelak argitaratu zirenerako, aldiz, euskal literatura oso aurreratu eta garatua zegoen, eta beste erreferentzia nagusi batzuen itzalpean geratu ziren Txillardegiren lanak. Hala ere, aldeko komentarioak jaso zituzten hainbat kritikari, idazle eta literaturzalerengandik.

## ↓ Bibliografia

### NOBELAK

- *Leturiaren egunkari ezkutua* (Euskaltzaindia, 1957)
- *Peru Leartzako* (Itxaropena, 1957)
- *Elsa Scheelen* (Lur, 1969)
- *Haizeaz bestaldetik* (egile editore, 1979)
- *Exkixu* (Elkar, 1988)
- *Putzu* (Elkar, 1999)
- *Labartzari agur* (2005)

### NARRAZIOAK

- *Kosmodromo* (Haranburu, 1984)

### SAIAKERAK

- *Huntaz eta hartaz* (Goiztiri, 1957)
- *Sustrai bila. Zenbait euskal koropilo* (Irakur, 1970)
- *Hizkuntza eta pentsakera* (Gero-Mensajero, 1972)
- *Euskara batua zertan den* (Jakin, 1974)
- *Oinarri bila* (egilea editore, 1977)
- *Fonologiaren matematikuntza* (UEU, 1978)
- *Euskal Herriatik erdal herrietara* (egile editore, 1978)
- *Euskal Gramatika* (Ediciones Vascas, 1978)
- *Euskal dialektologia* (egile editore, 1983)
- *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (UEU, 1984)
- *Euskal azentuaz* (Elkar, 1984)
- *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (Elkar, 1984)
- *Gertakarien lekuko* (Haranburu, 1985)
- *Antigua 1900* (Kutxa, 1991)
- *Euskal Herria helburu* (Txalaparta, 1994)
- *Soziolinguistika matematikoa* (UEU, 1994, Xabier Isasirekin elkarlanean)
- *Lingua navarrorum* (Orain, 1996)
- *Euskararen aldeko borrokan* (Elkar, 2004)
- *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (Kutxa, 2004)
- *Horretaz* (Elkar, 2007)

### TXILLARDEGIRI BURUZ

- **Ibon Sarasola:** *Txillardegiri eta Saizarbitoriaren nobelagintza* (Kriselu, 1975)
- **Joxean Agirre:** *Hitza hitz Txillardegirekin solasean* (Elkar, 1996)
- **Askoren artean:** *Txillardegiri lagun-giroan* (UEU, 2000)
- **Askoren artean:** *Nerekin iaio nun. Txillardegiri omenaldia. Homenaje a Txillardegiri* (Euskaltzaindia, 2005)
- **Markos Zapiain:** *Txillardegiri eta ziminoak* (Susa, 2007)
- **Sebastian Garcia Trujillo:** *J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegiri). Existenzialismoa eta Jainkoa: itzalak baino argiak nabarmenagoak* (Desclee, 2007)

# Agur gordin bat

**Markos Zapiain**  
Idazlea eta irakaslea

**H**eriotza izan da Txillardegiren kezka nagusietako bat, idazten hasi zenez geroztik *Horretaz* azken liburua arte. Biziki hunkitu zuen, gaztetan, Marilyn Monroeren suizidioak; baita, txikitari, asto baten heriotzak ere, Igeldoko Muitza baserrikoa. Aitak kontatzen zion eta sekula ez zitzaion ahaztuko. Muitzatik itsasorantz labar labain more-beltz bat dago, harkaitzeko txirrista bat. Baserriaren bazuten asto bat; zahartu eta itsutu egin zen. Ez zekiten nola akabatu. Azkenik, begiak zapi batez estali eta labar hartatik behera amildu zuten.

Hainbat arlotan egiazta daiten Txillardegiren aitzindaritzak. Narratibara mugatzearen: Eli Laztanguren jakinarazi digu gaur egungo genetistak liluraturik dituela Txillardegik 1957an *Orangutanen ugartea* ipuinean iradoki zuen aukera batek: milioika urtez, gizakiak eta ziminoak elkarrekin nahasturik jo zuten larra, eta nahasketa horren ondorio ginateke edo txinpantzeak edo bestela gu gizakiok; euskal eleberrin modernoa abiarazi zuen (Leturia eta Peru arazoz betetako protagonista aldakor eta gogoetariak dira); emakumea zen Elsa Scheelen, eta gainera suizida; *Haizeaz bestaldetik* eko esperimendu sinboliko poetiko ausart haiek...

Txillardegik baino lehen inork

ez dio lotu Euskal Herriaren aldeko borroka animalienaganako maitasunari. Gizakiaren animaliatasun nabarmenak durduzaz eta dardaraz jarri izan ditu sistema filosofiko klasikoak, Jainkoaren antzirudiko ikusarazi nahi izan baitute kosta ahala kosta huananoa, izpiritu aratz. Txillardegirentzat, mendebaldeko pentsamendu nagusian animaliak betetzen duen baztertoa bat dator indarrean dauden egitura politikoetan estatutik gabeko herri txikiak betetzen dutenarekin: «arazoz» dira, «konpondu beharrekoak», edo bestela zuzenean desagerrarazi beharrekoak, ziminoaren ispi-lu kezkarria bezalaxe. Txillardegik, ostera, baztertoiko ispi-lu argitzen eta duintzen ahalegindu da, bihotzak bultzatuta.

Aitzindari izan dugu, halaber, heriotzari aurre egiteko erari dagokionez. Txillardegik bat egin du Spinozarekin eta Einsteinekkin Jainko pertsonal epaile transzendentea ukatzeko orduan. Izatekotan, Jainkoa Natura bera litzateke, dagoen guztia.

**Txillardegik baino lehen inork ez dio lotu Euskal Herriaren aldeko borroka animalienaganako maitasunari**

Guk etxeak eta tunelak helburu batekin egiten ditugunez, suposatuta izan dugu Unibertsoak ere baduela Egile bat eta helbururen batekin egingo zuela Bere Obra. Txillardegiren ustez, giza proiektio hutsa duzu xedetasun hori, Unibertsoa ez baitoa inora. Honelaxe formulatu du azkia *Horretaz* bere azken liburuko azken galderan: «Hegalak dituztelako egiten dute hegan txoriek? Ala hegan egiten dutelako dituzte hegalak?». Dударik ez Txillardegirentzat: hegalak dituztelako egiten dute hegan.

Unibertsoak ez du berezko zentzurik, gure bizitzak eta heriotzak ez duten bezala. Txillardegik garbi ukatu du Adimen Onberaren batek dagoena taxutu duelako ustea, gizakia xede. «Antropokeria» hitza asmatu zuen jarrerara horri kontra egiteko. Antropokeria gai da Jainkoaren trebetasun zintzoa goraiatzeko, gizakiok sudurdun sortu izanagatik, gainean baturaurrekoak kokatu ahal dituzte. Txillardegiren esanetan, «txiripa hutsez heldu gara geure honetara».

Unibertsoa ez zen gizakiarentzat egin.

Horrela, Txillardegik heriotzaren oinazea bere gordinen adierazten ahalegindu da eleberritan zein saiakeretan, gizakiok geure buruari asmatzen dizkion kontsolagarriak erantzirik. Hauxe da, beraz, unerik desegokiena Txillardegiri traizio eginik heriotzaren ikaragarria baretzen ahalegintzeko.

# Haiengatik gaude hemen

**Xabier Mendiguren**  
Elizegi

Idazlea eta editorea

**A**tzo eguerdi aldean, Jose Luisen heriotzaren berria zabaltzen hasi zenean, halaxe idatzi zuen sarean Arana Goiriren arima bailitzan agertzen den adar-jotzaile batek: «Txillardegiri zeruko atetik sartu barri da, 'Gora Euskadi askatuta' garrasi egin. Pentsetan dot ondo pasako dogula elkarrengaz». Txantxak txantxa, mezu horrek pentsarazi zidan Sabino eta Txillardegik elkarren segidan jartzeko modukoak direla, bata bestearen ukazio ez baizik eta osagarri, eta bi-akiak Euskal Herriak XX. mendearen izan dituen gizonik inportanteenak, agian.

Herri honen nortasuna gainbe-

hera zihoala altxatu zen Sabino Arana, karlisten semea, Espainiaren utzartetik askatzeko dei egina. Ideiaren pitzaile, ideologia baten zabaltzaile, mugimendu baten antolatzaile gisa nabarmendu zen, baina horien garapenean ez zuen parte hartzerik izan, gazterik hil zelako. Akats asko aurpegi-ratu izan zaizkio Abandoko propagandista hari, baina hura izan ez balitz beharbada hau idazten eta irakurtzen gabiltzanon kezka bakarria izango zen Mariano Raxoiren hurrengo mozketa edo Rubalcaba-Chacon lehia.

Frankismoaren zulo beltzean, aliatuek euskaldunoi bizkarra eman ondoren jaiki zen Alvarez Enparantza, beste gazte bipil batzuekin batera, herri honek bizi nahi zuela aldarrikatzeko. Euskarak galzori bueltarik gabekoan zi-

rudienean, euskara ikasi zuen, horretarako baldintzarik txarretan, eta herri honen funtsa hizkuntzan zetzala irakatsi zigan, aurreko abertzaletasunaren oinarri arrazial eta historizistak baztertzuz. Euskararekiko atxikimenduteoriko eta praktikoko hori zordiuo beste ezer baino lehen, gure literatura berriuz eta hizkuntzaren batasunerako oinarriak jarri, baita aberriak eta hizkuntzak elkarren behar gorria dutela behin eta berriz errepikatuta izana ere. Politikan ere, talde harixe zordiuo, mende erdi baten ondoren itzali den erakundea sortu izana, Txillardegiri bera laster kanpoan gelditu bazen ere. Akatsak akats, haiengatik izan ez balitz, oso litekeena da gaur berripaper hau ez existitzea, eta gu denok orain erdaraz lasai arraio aritzea.

# Euskal Herria zorretan dago

Guztiak aitortu dizkiote ekarpen garrantzitsuak eta funtsezkoak Txillardegiri, baina gehienek onartu dute merezi zuen eskertza jaso gabe joan dela.

Jakes Goikoetxea - Joxerra Senar

**D**enek dute zer eskertua Txillardegiri: lan politikoa, hizkuntzalaritzan egindakoa, euskararen oinarriak finkatzea, literaturan berritzaile izatea, herri mugimenduak sustatzea... Baina baita eragin pertsonala ere. Joan Mari Torrealdaiak ondo laburbildu du: Txillardegik lan asko egin zuen, baina batez ere eragilea, akuilua, izan zen ondo kontzertatua eta gazteentzat.

MARTIN GARITANO

Gipuzkoako diputatu nagusia

«Inoiz ez du atzerapausorik eman bere ideien defentsan»

«Euskal Herriak asko zor dio, zeren frankismoaren gau ilunean ausardia nahikoa erakutsi zuen, beste batzuk isilik zuden. Frankismoari aurre egin baitzuen, gogoz, indarrez eta ETaren sorreran parte hartuz.

Horrez gain, haren ekarpen kulturala begi bistakoa da. Euskararen aldeko borrokalari amorratua izan da, gure herriaren nortasuna azken muturreraino eramandu du. Ezin dut ahaztu Txillardegiri, beste gauza askoren artean, EHEren sortzaile eta arima izan zela. Ezin dut ahaztu Madri- len Josu Muguruza hil zutenean eta Inaki Esnaola larri zauritu zutenean bera han zegoela, bere bizitza arriskuan jartzen Euskal Herria ordezkatzeko. Inoiz ez du atzerapausorik eman bere ideien defentsan. Beti Euskal Herria izan du helburu. Aintzat gutxi hartu izan dutela aitortu behar da».

JOSUNE ARIZTONDO

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua

«Euskal intelektual handi bat galdu dugu»

«1970eko hamarkadan, Udako Euskal Unibertsitatean irakasle, euskara eta filologia ikastaroak edo mintegiak ematen zituen.

Ezagutu nuenetik hona, beti pentsatu dut irizpide pertsonalak argi zituela, iritziak sutsuki defendatzen zituela, eztabaida sortzaila zela eta eztabaidei eusten zekiela, bai politikan, bai euskalgintzan, bai filologian eta baita soziolinguistikaren ere. Aitzindaria izan zen bai nobelagintzan, bai euskararen aldeko lanetan.

»Hitz gutxitan esatearren, esango nuke euskal intelektual handi bat galdu dugula. Badoaz gure euskal intelektualak, eta, gainera, uste dut ez dugula behar beste nabarmentzen intelektual izate hori, kultur bizitza hori euskaraz egiten denean. Eta nik hori azpimarratu nahiko nuke Txillardegiren kasuan: intelektual handia zen».

EZKER ABERTZALEA

«Abertzaleen batasuna da haren ibilbideari eskaini diezaiokgun jarraipen onena»

«Aberria eta euskara izan dira bere borroka gune nagusiak, eta bera izan da, gainera, aberriaren funtsa hizkuntzan datzala defendatuz bidea zabaldu duena. Hainbat belaunaldientzat ikur bihurtu da.

»Euskara eraginkor eta bateratua behar zen horretarako, aberriaren funtsa hizkuntzan datzala defendatuz bidea zabaldu duena. Hainbat belaunaldientzat ikur bihurtu da.

»Hori guztia, gainera, Euskal Herriarentzat urte oso gordinean borrokatzea suertatu zitzaion Txillardegiri, frankismoaren garaian alegia, eta EAJ alderdiaren axolagabekeria tarteko. Borrokatu, ekeita deliberatu zuen, eta alor horretan ere bidegile izan zen, beste hainbatekin batera ETaren sorreran parte hartuz, lo-zorroan zegoen elite politikoari bizkar eman eta herriaren askatasun nahinari etorkizun bat eskaintzeko asmoz.

»Bere ideiak bururaino eramateko prest egon da bizitza osoan.

Guztia, Euskal Herria euskalduna helburu hartuta. Euskal Herria helburu bai, eta horri begira, bere iritziak, ekarpenak eta kritikak ezkutatu gabe azaldu ditu. Abertzaleen batasuna izan da beti bere lelo nagusia eta azken urteotan norabide horretan herri honetan egiten ari garen ibilbidea izan da. Ezker Abertzaletik hasita, Txillardegiren ibilbideari eskaini ahal izan diogun jarraipenik bikainena».

ARALAR

«Bakearen eta bide politikoen aldeko apustu zintzoaren lekukotasuna jaso genuen»

«Aralarreko militante gisa hurbiletik ezagutu genuen, eta haren jokaera zintzoa eta zorrotza izan da beti, zorrotzegia eta guzti kasu batzuetan. Txillardegiren bakearen eta bide politikoen aldeko apustu zintzoa eta irmoaren lekukotasuna jaso genuen, nahiz eta Francoren garaian diktaduraren kontrako borroka bultzatzaile izan».

EUSKO ALKARTASUNA

«Garai berrietara egokitzen jakin zuen, Euskal Herri euskalduna lortzeko»

«Militantea izan zen Euskal Herria eraikitzeko funtsezko eremuetan. Gainera, garai berrietara egokitzen jakin zuen, Euskal Herri euskalduna eta librea lortzeko bide onenak aurkitzeko».

RAMON ETXEZARRETA

Idazlea

«Hasierako obrak pizgarri izan ziren garaioko gazteentzat»

«Berak egindako ekarpenetik arlo ideologikoan egindakoak dira gutxienez konpartitzen ditudanak. Euskararen baitan egindako lanak eta batik bat euskal literaturan aitzindaritzaz suposatu duen hasierako obra hori—*Leturriaren egunkari ezkutua* eta *Elsa*



Joseba Alvarez Txillardegiren semea, ezkerrean, ezker abertzaleko eta euskalgintzako oinarri

*Scheelen*—azpimarratuko nituzke. Garaiko belaunaldientzat estimulu izan ziren eta uste dut, bere neurrian, erreferente bat direla euskal literaturan».

PAUL BILBAO

Kontseiluko idazkari nagusia

«Euskara berreskuratzaren kontakizunean erreferentzia izango da»

«Gure hizkuntzaren berreskuratzeko prozesuan eta euskalgintza garaikidean Txillardegiri gidari izan dugu milaka eta milaka euskaltzalek. Euskaraz bizitzeko nahia determinazioz eta koherentziaz eutsi dion euskaltzale amorratua izan da. Euskara ikasi, irakatsi, euskarazko literaturaren berritzaile, euskara batua sustatu, euskal soziolinguistika aldarrikatu eta ekarpenez hornitu, eta nola ez, euskalgintzan aktiboki jardun... Euskara eta euskararen etorkizuna izan dituela bidaide.

»Marketin instituzionala alboratu eta euskararen benetako beharrak aski ongi definituta zitu. Etorkizunean euskaraz biziko den Euskal Herria nola iritsi errazteko ekarpenak eginak zituen. Gure hizkuntzaren berreskuratzeko prozesua egiazko bihurtzeari begira lan egitea izan da Txillardegiren erronketako bat. Horrela, zailtasunak zailtasun eta diskurtso ofizialari aurre egin behar bazion ere, berak jakin izan du euskararen beharretatik hitz egiten.

»Gizatasunez, gardentasunez, gertutasunez... jardun izan du beti, handikeriatan erori gabe, gure hizkuntzaren etorkizuna

izan du ardura bakarra, eta euskalgintza beti izan du bidelagun. »Gure hizkuntzaren berreskuratzeari buruz inoiz idatziko dugun kontakizunean Txillardegiri izango dugu erreferente. Txillardegiri begirunez, baita maitasunez ere gogoratuko dugu beti».

ANDER ITURRIOTZ

Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria

«Bideak ireki zizkigun eta bide horietan barrena lan egin behar dugu»

«Herri honen eman dituen seme eta alaba asko bezala, kulturgile handia izan da. Herri guztietan daude horrelakoak, baina gurean gehiago behar ditugu horrelakoak, ahulak garelako. Galera handia da. Kulturgile handia zen zentzu guztietan, kulturgile klasiko- en estiloan.

»Hizkuntzalaritzan sekulako lana egin du. Oraindik gogoan dut duela 35 urte alfabetatzen hasi ginenean haren testuak erabili genituela, *Oinarri bila* eta beste batzuk. Literaturan berrikuntza izugarria ekarri zuen bere nobelagintzak. Soziolinguistikaren lan handia egin zuen eta praxis militantea nabarmendu nahi dut, bizitza osoan eta azken unera arte egon da engeiatua euskalgintzaren rekin.

»Eta hori guztia bilduz, gizon politikoa izan da. Bere testu garrantzitsu batek esaten zuenez, Euskal Herria izan du beti helburu. Ez du etsi asmo horretan. Euskal Herriari asko eman dio eta Euskal Herria berarekin zorretan dago. Bideak ireki zizkigun eta bide horietan barrena lan egin behar dugu».



dezkariekin, belatokia. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

### IGONE LAMARAIN

EHEko bozeramailea

«Haren grina eredu moduan hartu behar dugu»

«EHE sortzeaz gain, beti egon da EHErekin harremanetan. Beti izan du prestasuna bereganajo egiteko. Iazko otsaileko ekitaldia oso garrantzitsua izan zen, omenaldia egin nahi geniolako.

Ez genuen omenatu soilik EHEren sortzailetako bat izan zelako, haren ibilbideari gorazarre egin nahi genion.

»Euskalgintzari kristoren ekarpena egin dio. Euskarari, idazle eta ikertzaile moduan egin dio ekarpena, baina, gainera, beti egon da euskararen alde borrokan.

»Haren grina eta borrokarako

gogo hori eredu moduan hartu behar dugu. Euskaltzaleon erreferentzia nagusien artean egongo da etorkizunean ere. Beti jarri izan du euskara denaren gainetik eta, denok hori egingo bagenu, gauzak oso ezberdinak izango litrateke. Harentzat lehentasuna euskara eta herria ziren, eta gero zetorren gainerako guztia».

### JOAN MARI TORREALDAI

Idazlea eta euskaltzaina

«Egin zuena gauza bat da, baina, batez ere, eragile izugarria izan zen»

«Harreman zuzena izan dut 1960ko hamarkadatik. Zuzena, estua eta konfiantza handikoa. Harremanetan oso zuzena eta xaloa zen, nahiz eta jende askok berari buruz polemiko irudia. Polemikoa zen idatzietan eta ideietan. Harreman pertsonaletan oso beroa zen.

»Jakin-ekin zuen harremana haserre batekin hasi zen: aldizkariak lehen zerbaitetan Orixeren bidea hartu zuelako. Geroago, zuzendaritza berriarekin, euskara modernoaren aldeko apustua egin zuen, eta hor Txillardegia eta Mitxelena izan ziren aitaopontekoa. euskara modernoarena ez da bakarrik hizkuntzaren arazo bat, baita pentsamendua ere.

»1964an, Baionako bileran, Txillardegia izan zen euskara batuaren aldeko eragile nagusietakoa. Euskara batuaren prozesuan *Jakin* izan zen Txillardegiren ideien

plataforma nagusia. Hor harreman estua eta bizia izan nuen berarekin.

»1960ko hamarkadako belaunaldikoontzat etxeko anaia nagusia bezala izan da. Egin zuena gauza bat da, baina eragile izugarria izan zen. Ausarta zen, printzipioetan finkoa, korrontearen kontra joateko beldurrik gabea, kezkatua, oso kezkatia, intelektuala irekia, konformagaitza eta euskal kulturaren barruan Europako korronte modernoak sartu zituen lehenetakoa. Euskalgintzak izugarri zor dio. Euskara batuaren egiazko aita izan zen. Ez Aresti, ez Mitxelena. Ez alferrik Krutwigek bere euskara batuari *txillardegikera* deitzen zion».

### JOXE AUSTIN ARRIETA

Idazlea

«Hiru aita espiritual izan ditut, eta horietako bat izan da Txillardegia»

«Ohore handia izan da horrelako gizon erraldoi baten laguna izatea. Behin baino gehiagotan esan eta idatzi dut hirur aita espiritual izan ditudala, nire bizitzan, euskaltzaletasunean eta munduan izateko moduan: aita biologikoa ere banuena, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna txikitatik sartu zizkidana; Juan Mari Lekuona, ikasle garaian eta gero euskal kulturaren ikuspegi zabala eskaini zidana; eta Txillardegia, euskaldun moderno bezala bizitzen erakutsi ziguna».

### Komentarioak

berriketan.info

«Txillardegia hil da. Euskaltzale handi bat. Besteak beste, erakutsi digu euskaldunok fidelak garela gure hizkuntzarekin, euskara gehiago ez erabiltzeko oztopoa euskara ez dakitenak direla, zaila dela euskara erabiltzea tartean euskara ez dakitenak badaude. Lan handia egin du, eta badugu zer ikasi Txillardegik egindakotik eta Txillardegia izandakotik». ■ **Joanmari Lararte**



«Txillardegia gure euskal Noam Chomsky handia zela esanez motz geldituko nintzateke».

■ **Pernando Barrena**

«Euskaltzale eta abertzale handia joan zaigu. Goian bego».

■ **Markel Olano**

«Gaur gure historiaren zati bat joan da, zuek piztutako suak ekarri gaitu hona, Agur eta Ohore, Txillardegia!». ■ **Beñat Zarrabeitia**

«UEUren ibilbidean ondoan izan dugun laguna, kidea eta partaidea joan zaigu. Agur eta ohore Txillardegia». ■ **UEU**

«Txillardegia gogoan. Gure garaia aitazindari. Gure hizkuntzaren buruzagia».

■ **Bingen Amadoz**

«Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegia* hil da. Banekien euskararen belaunaldia iritsiko zelakoan joan zaigu, nik uste. Berak zioenez, «herri-pizkunde gutxieta, lehendabiziko abertzale belauna hizkuntza arrotzez baliatzen da. Bigarrena, aldiz, nazio-hizkuntza. Etorkizunari buruz, hortaz, bertako hizkuntza ez dakien belauna, atzeraturik gelditzen da laster; eta gelditze hori da hain zuzen aurrerapenaren termometro on bat».

Euskararen herriaren branka belaunaldi berriaren zekusan, beraz. Oraingoek eta etorkizuneko euskal belaunaldiek ez al diote hutsik egingo Txillardegiren itxaropenari! Horrenbeste merezi du guztiontzat eredugarri izan den euskaltzale abertzale handiak. Zorretan gaude, zorretan egongo dira. Hi izan haiz gure itsasargia.

«Gure historian erraldoi».

■ **Luistxo Fernandez**

«Donostiako Udalak kale bat edo plaza bat eskaini beharko lioke #txillardegia-ri. Goian bego, maisu». ■ **Arkaitz**

«Txillardegia hil da. Batek daki non geundkeen bera bezelakoan lanik gabe».

■ **Irudion**

## Txillardegiren brankan

### Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea

Soziolinguistikaren bidegurutze nagusietan ere Txillardegia ageri zaigu. Bere abertzaletasunaren ardaztean euskara zegoenez, euskal nazionalismo linguistikaren aitazindari izan dugu. *Euzkotar* eta *abertzale* askorekin izandako eztabaidak eta gorabeherak ditugu horren lekuko: Txillardegia borroka horretan ere eredugarri izan dugu, euskararik gabeko abertzaletasunik ez zuelako onartzen inola ere. Euskal Herrian Euskaraz mugimenduaren sortzaile izanik, alderdi politikoaren erdal praxiak zapuztu zituen bere ametsak.

*Branka* aldizkari goraiztatik dakusagu Txillardegiren euskaltzaletasun irmoa. Euskal Herriaren arimatza zeukan euskara: «Hizkuntza da herri baten sorkaririk funtsezkoena, bere nazio-jakintzaren oinarria. Hitz batez:

hizkuntza da herri baten arima». Nazio-hizkuntzaren inguruan artikulatutako nahi zuten euskal nazioaren izaera. Euskal nazio-identitatearen osagaririk funtsezkoena euskara da bere begietan, gainerakoak gainerako. Euskara galdutako lurraldeetan euskal nortasunaren ordezkapena etorri baita ondoren: «Geroztik gailendu da espainiera alderdi horretan; eta geroztik ere, espainol hizkuntzarekin batera, espainol izana, espainolotasuna, eta ilaran gero espainol izan nahia eta euskaldunetako ukoa. Beste hitz batez, hizkuntzarekin batera, herrikitetasun berri bat nagusitu da, naziotasun berri bat, eta azkenean abertzaletasun berri bat».

Euskararen arazoak testuinguru nazionalaren koordenatuetan ezarri zigun euskaltzale handiak. Euskararen normalizazio soziala ez da hizkuntza-kontu hutsa, inplikazio sozial eta nazional sakonak dituen problematika da. Ez zuten sinesten euskaltzaletasun

aratzean, nazio-boterearen arteko lehiatik eta borrokatik haratagoko soziolinguistikari. *Branka*ko bere lanetan jadanik garbi zegoen auzi hori: «Erresumak erabakitzen du hizkuntzen etorkizuna; eta gero eta nabarmenago da hau egia. Auziaren karkoa horretan datza. [...] Egan dezagun, beraz, oraingo, eta erresuma hau den edo hura den aztertu gabe, erresuma dela hizkuntzen etorkizuna erabakitzen duena».

Euskal estatu independenterik gabeko euskararen normalizazio soziala pentsatze hutsa zentzugabea da Txillardegirentzat. Baina bera izan zen, inor izatekotan, Irlandako atarramentu hitsa gure artean gehien azpimarratu eta kritikatu zuenetakoa. Ez zuten geroko gerotan utziko zuten hizkuntza-politikarik aditu ere egin nahi gurerako: «Irlandarrek *gerorako* izaten hizkuntzaren soluzioa, lehentasuna beti besteri eman zitoten, irlandar postu gorenetan hizkuntza ez zekitenak onartu zituzten, abertzale borroka eta hiz-

kuntzaren borroka elkarrengandik berezi zituzten. (...) *Gerorako* eta besteentzako utzi zuten gaeleraren arazoa».

Txillardegiren azken urteotako talaiatik itxaropenaren zantzuak ikusten ziren euskararen auzian. Atzera begira botatako begiradari baikortasuna zerion. Beste «herri-pizkunde» argitan euskararen belaunaldia iritsiko zelakoan joan zaigu, nik uste. Berak zioenez, «herri-pizkunde gutxieta, lehendabiziko abertzale belauna hizkuntza arrotzez baliatzen da. Bigarrena, aldiz, nazio-hizkuntza. Etorkizunari buruz, hortaz, bertako hizkuntza ez dakien belauna, atzeraturik gelditzen da laster; eta gelditze hori da hain zuzen aurrerapenaren termometro on bat».

Euskararen herriaren branka belaunaldi berriaren zekusan, beraz. Oraingoek eta etorkizuneko euskal belaunaldiek ez al diote hutsik egingo Txillardegiren itxaropenari! Horrenbeste merezi du guztiontzat eredugarri izan den euskaltzale abertzale handiak. Zorretan gaude, zorretan egongo dira. Hi izan haiz gure itsasargia.

# Konprometitua, koherentea eta ezinbestekoa

**Xabier Mendiguren Bereziartu**  
Idazlea eta itzultzailea

**A**urrena Txillardegik politikaria ezagutu nuen. Euskal Herri euskaldun eta sozialistaren aitzindaria zen. Bagenekien ETArek sorreran egon zela, eta gazteria abertzalean halako miresmen bat eragiten zuten, berarekin ados egon edo ez egon. Pixkana-pixkana, eboluzionatuz joan zen: EAJtik ETArek sorrerara, ETAtik kanpora, Xibertako fronte abertzalea bultzatzera, Herri Batasuna sortzera, Aralarra, EAE-ANVra... Horrek guztiak erakusten du Txillardegik helburuak beti garbi zeuzkela, analisi propioak egiten zituela eta behar zenean ez zeukala beldurrik pausoak emateko. Oso garbi zeukan Euskal Herri euskaldun batuaren aldeko konpromisoa. Hori Txillardegik politikoa zen.

Hori izan zen lehen aldi batean gehien ikusi nuen alderdia. Baina gero, parez pare, ekoizpen literarioa hasi zuen. Lan izugarria. Gogoan dut nolako harri durarekin irakurri genuen *Leturiaren egunkari ezkutua*. Une hartan euskarazko literaturan ezagutzen genituen autoreekin alderatuta —Orixe eta beste zenbait—, bere literaturara zeharo berria zen, bai edukiz, bai formaz. Geroago irakurri genituen *Elsa Scheelen, Peru Learitzako... Leturiaren egunkari ezkutua*-k eragin nabarmena izan zuen. Txillardegik Europako existentzialismoa oso ondo ezagutzen zuten, bere zabalera guztian, ez bakarrik literarioa. Unamunozale porrokatua ere bazen. Literaturan, beraz, leku nabarmena du, eta aitzindari izan zen, gero etorri ziren beste batzuekin batera.

Saiakeran, zer esanik ez. Hizkuntzalaritzan egindako lana nabarmendu nahi dut. Txillardegiren lana ezin da ulertu hizkuntzari eskaini dion denborarik gabe. Euskara batuari bultzada izugarria eman zioten berak eta Krutwigek, Arestirekin batera. Gaurko euskara batua pentsaezina da berak egindako lana gabe. Pena izan da bere momentuan Euskaltzaindian izan behar zuen lekua ez lortu izana. Hala ere, erakundearen kanpotik, bere presentzia ezinbestekoa bihurtu da euskararen aurrerabidean.

Oso pertsona garrantzitsua galdu dugu, baina bere obra hor dago eta berak abiatutako lanak hor daude. Ondoren etorri diren belaunaldiek hori oso kontuan dute, eta Txillardegik bere zabalera eta sakonera guztian balioesten asmatuko dute. Oraindik gauza asko dago Txillardegiren obran aztertzeko eta sakontzeko. Saiatu beharko genuke bere ahaleginaren parean egoten.

Txillardegik XX. mendearen bigarren erdiko eta XXI. mendearen hasierako euskalgintzaren zutabe nagusietako bat da. Txillardegik ez ezik, aipatu behar dira ere Mitxelena, Villasante eta beste gutxi batzuk. Baina, bere osotasunean, zutabe handiena izan dela esango nuke. Beste batzuek agian literatura edo hizkuntzalaritza landu dituzte, baina Txillardegik Euskal Herri osoaren eraikuntza lotu du. Bere ideiekin ados egon edo ez, inork ezin dio ukatu hasieratik bukaerara izan duen koherentzia. Euskalgintzak eta Euskal Herri euskaldunak galdu egin dute bere aita ponteko nagusia.

